# Zerainek ere badu bere sagardotegia

**INOZENTZIO OLEA**

Garai batean itxaropen guztia industrian jarri genduan. Lantegietako irabaziak ziurtasun geiago ematen baizuan baserriko etorkizunak baiño. Kalean bizitzen ere lanak ziran, baiña ain adoretsu eldu genion bizimodu berriari, kalean bizi-tokia moldatu bearrak irentsi zizkigula indar guztiak esan zitekean.

Alkar-lanerako denbora gutxi gelditzen zitzaigun. Denbora gutxi eta erreztasunik ere ez. Garai artan ez baizegoen goitik agintzen zigutena egin besterik. Gure ordez goikoak pentsatzen zuten.

Dana eginda ematea bizitzeko erreztasun bat dala esan diteke, eta ala litzake ekinbidea kendu zaionari bear duan guztia eta bere gogoko bizimodua emango balitzaioke, baiña au zailla da eta ez da orrela gertatzen.

Leenagoko pentsakera ari indarra joan zitzaion eta beste bizikera bat etorri zan. Gero lana urritu zan eta ortik ere aldaketa asko etorri ziran. Erria bere buruaren jabe izaten asi zan bezela asi zan komeni zitzaizkion bideak artzen eta onek erri asko, naiz txikiak izan, serbitzuz gerozta obeto osatzea ekarri zuan. Aldebatera badirudi au lanik ezak ekarri duala. Onek izango du, noski, zerikusia, baiña erri asko ekin-bidea artu al izateak jantzi ditu edo orri eskerrak ari dira jazten.

Garai batean zeiñek esan guri Zerainen sagardotegia ezagutuko genduala? Iritxi gera ba ortara ere. Ilbeltzaren 19'an, San Sebastian bezperan iriki zan sagardotegia Zeraingo Otatza baserrian eta ez nolanaikoa. Ez leenagoko sagardotegi zaar bat berrituta edo moldatua, ezeren arrastorik etzegoen tokian eraikitako sagardotegi berriberria baizik. Zerainek serbitzu bat geiago du emendik aurrera.

Jatorrizko egitura du sagardotegi berriak. Zerbait janez eta sagardoa edanez zutik egon nai dutenentzat badago aukera. Aldiko 25 bat lagunek egin dezakete ori. Beterrian oitura aundia da ortarako baiña Goierri aldean ez dakit oraindik ortara jarrita ote gauden. Batetik bestera dabiltzan gazteak baditeke, baiña egonarri oneko elduok jan eta edan eserita egin naiago izaten degu, eta gure etxekoandreek zer esanik ez. Ortarako ere badago tokia Otatzan. Antxe dago 75 bat sagardo-zalek patxadan eserita lasai jan dezaketen gela argi eta txukun askoa.

Jende asko eta giro bikaiñarekin eman genion asiera Otatza sagardotegiari. Bertsolari eta trikitilari, bazan umorea, eta ez umorea bakarrik, baita ondo maneatutako jaki atsegingarriak ere. An jan genitun baiño bakaillao, txuleta, gazta eta irarsagar obeak billatzen ez da errez izango. Eta ez naiz ari Zerain goratzeagatik. Otatzara joaten diranak arrazoi emango didatela uste det. Sagardo-zale askoren iritziak entzuteko aukera izan nuan leengoan. Iru kupelatako sagardoak proatu genituan eta irurak onak, bakoitza bere bereiztasunarekin.

Otatzako Iparragirre familia aspalditik ezagutzen det. Pertsona sanoak izateaz gaiñera langille purrukatuak ziran leenagokoak, eta oraingoak ere alakoxeak dirala entzun det toki batean baiño geiagotan. Sagardoaren eta apaltzen eman zizkiguten jakien kalidadeari eusten badio etorkizun ona ikusten diot Otatza sagardotegiari. Benetan opa det auxe Zerainen ondrarako eta Otatzako famili jatorraren onerako.

Enero 95